



**Arartekoaren 2017R-991-16 Ebazpena, 2017ko irailaren 14koa. Horren bitartez, Zierbenako Udalari gomendatu genion etxebizitza baten ezegonkortasunari lotutako salaketari erantzuteko. Izan ere, euri-uren eta bestelako hodiak igarotzen dira kexagilearen finkatik.**

### Aurrekariak

1. Arartekoak (...)k aurkeztutako kexa jaso du. Horren bitartez, interesdunak salatu du Zierbenako Udalak ez duela erantzunik eman ez eta jarduketarik bideratu ere bere etxea kokatuta dagoen lurzoruaren egonkortasun arazoei lotuta; izan ere, euri-uren eta bestelako hodiak igarotzen dira bertatik.

Pertsona horrek adierazi du, 2013. urteaz geroztik hainbat aldiz jakinarazi diola udalari (zenbait idatzi aurkeztu ditu, besteak beste 2014ko azaroaren 20an, 2015eko martxoaren 17an eta 2016ko urtarrilaren 28an) bere finkaren aldamenean kokatutako euri-uren eta bestelako hodiak etxebizitzaren zimenduak hondatzen ari direla, eta horrek etxearen egonkortasunari eragiten diola. Gainera, interesdunaren iritziz, pertsonak arriskuan daude gertatzen ari diren luiziak direla-eta; izan ere, hartutako behin-behineko neurriek egoera are gehiago larritu dute. Kexagilearen ustez, aipatutako egoera oso kezagarria da.

Interesdunak aurkeztutako argazkiei erreparatuta, mendi-hegalaren azaleratik hainbat hodi igarotzen direla ikus daiteke; horiek kaltetutako pertsonaren etxebizitzari eusten dion lurzoruarekiko paraleloan daude. Hodi horiek ez daude hustubide edo kutxatila batera bideratuta, eta, beraz, hegalaria isurtzen dira eta kalteak eragiten dituzte; kexagilearen esanetan, bere finkan husten dira, hodietako ura zuzenean bere finkara isurtzen dela egin baitute behin-behineko instalazioa. Laburbilduz, udalaren jardun horrek kalte larriak eragiten ditu bere finkan: agerikoa da harkaitzak hondatu egin direla eta gero eta ezegonkorragoak direla. Horrek lurzoruaren egonkortasunari kalte egiten dio, eta, hori dela eta, pitzadurak sortu dira dagoeneko.

2. 2016ko ekainaren 7an Arartekoak informazioa eskatu zion Zierbenako Udalari. Udal horren erantzunik jaso ez genuenez, berriz ere eskatu genion aipatutako informazioa, 2016ko irailaren 15eko errekerimenduaren bitartez. Ondoren, 2016ko azaroaren 16an, ohartarazpena bidali genion.

Horrez gain, beste izapide batzuk egin ditugu telefonoz behar genuen informazioa eskuratzeko, eta betiere erantzun bera jaso dugu: kontua korapilatsua zela baina izapidetutako eskaerari "laster" erantzungo ziotela. Urtebete baino gehiago igaro da erakunde honek hizpide dugun eskaera egin zuenetik, eta hiru urte baino gehiago interesdunak udalari esku hartzeko eskatu zionetik. Hori dela tarteko, erakunde honi egokia iruditu zaio gai horren inguruko gomendio bat helaraztea, interesdunak berak eman digun informazioa oinarri hartuta.





## Gogoetak

1. Arartekoak berriz ere dio udalak egiten zaion eskaera orori era arrazoituan erantzuteko betebeharra duela eta, gainera, ematen duen ebazpena behar bezala jakinarazi behar duela legeak ezarritako epeen barnean, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikularekin bat eginez.

Erakunde honek badaki udalaren berezko eskumenak gauzatzekoan legezko eginbeharrak betetzeko giza-bitarteko eta bitarteko material gutxi daudela. Hala ere, beharrezkoak diren ahaleginak egin behar dira pertsonen eskubideak bermatzeko eta eskatzen dituzten zerbitzu publikoak benetan eskaintzeko. Hori guztia zentzuzko epe baten barruan.

Hizpide duguna bezalako eskaera batek dakartzan zailtasun teknikoek ezin dute eragin udalak interesdunaren kexa ez ebaztea, are gehiago, hizpide dugun kasua bezalakoetan, interesdunak udalaren esku-hartzea eskatu baitzuen, bere etxebizitza kokatuta dagoen hegaleko segurtasuna eraginpean dagoela uste baitu. Horixe ezartzen du Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 88.5. artikulua; hain zuzen ere, hauxe dio artikulua horrek: *“Administrazioa inoiz ezin da ebazpena eman gabe gelditu, aitzakiatzat harturik kasuan aplikatzekoak diren lege-manuen hutsunea, iluntasuna edo murriztasuna.”*

2. Aurrekarietan adierazi dugun bezala, erakunde honek ez du Zierbenako Udalarekin egiaztatutako informaziorik. Hortaz, lehen batean, interesdunak egindako salaketan azaldutakoa bakarrik aipa dezakegu: hegaleko azaleratik igarotzen diren hodiak ez daudela hustubide edo kutxatila batera bideratuta, eta, beraz, hegalaria eta kexagilearen lursailera isurtzen direla. Interesdunaren esanetan, horrek bere finkari eragiten dio zuzenean, ura zuzenean bere lursailera isurtzen dela egin baitute behin behineko instalazioa. Dirudenez, Zierbenako Udalak hala eskatuta burutu dira ubideratze partzialeko obra horiek eta, interesdunaren esanetan, behin behinekoak dira.

Testuinguru horretan, bi lege aipa daitezke udalaren esku hartzea eskatze aldera.

Alde batetik, Uraren Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretua aipa daiteke. Lege horren 47. artikulua ezartzen du beheko onibarrek naturalki eta gizakiaren obrarik gabe goiko onibarretatik jaisten diren urak jaso ditzaketela baina goiko onibarraren jabeak ezin duela burutu egoera larriagotzen duen obrarik.

Interesdunak aurkeztutako argazkiei eta informazioari jarraiki, udalak zenbait lan egin ditu euri urak eta bestelakoak hegaletik igarotzen diren hodiak





bitartez bideratzeko. Hala ere, horiek interesdunaren finkara isurtzen dira, eta, kexagilearen ustez, bere etxebizitzari eusten dion lurzoruaren segurtasunari eragiten dio horrek. Beste gogoeta batzuk bazter utzi gabe, hala nola eremu horretan ezarritako instalazioak dakarren ikusizko inpaktua, interesdunak ez du zertan jasan hegalean gora datorren ura bideratzen duten hodiak bere lursailera isurtzea. Beraz, uraren arloko araudiak ezarritakoa betez, jardun hori eten beharko litzateke, interesdunak ez duelako uraren legezko zortasuna larriagotzen duen obrarik jasan behar.

Horrez gain, udalak eskumen ugari ditu baina eskumen adina betebeharrak ere bai: lursailak eta eraikinak segurtasun eta osasungarritasun baldintza egokietan mantentze aldera esku hartu behar du (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 199 eta 204. artikulua, besteak beste). Hori dela eta, hegalean segurtasun arazo bat egon litekeela salatu denez, eta horrek kexagilearen ondasunei ez ezik hirugarrenei ere eragin diezaikeenez luiziak sor litezkeelako, udalak azaldutako egoera gainbegiratu eta azaldutakoa benetan hala den egiaztatu behar du, eta, hala badagokio, beharrezkoak diren ekintzak bideratu edo horiek burutu daitezzen eskatu behar du.

Horri lotuta, ezin ditugu alde batera utzi hegalearen egonkortasunik ezak (egiaztatzeke dago egiatan hala den) eraginpeko pertsonen eta ondasunen ekar liezazkiekeen ondorioak, eta jarduniki abiarazi ez izanak ekar lezakeen udal erantzukizuna. Alde horretatik, gure erkidegoan hegalei eragin dieten orain gutxiko gertaera larriak aipatu behar ditugu. Denok izan dugu horien berri, eta honako hauek eragin dituzte: ura bideratu ez izanak edo lurzoru ezegonkorren gainean burututako beste jardun batzuek.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

## GOMENDIOA

1. Dagozkion izapideak egin ondoren, interesdunaren finkatik igarotzen diren euri uren eta bestelakoen hodiak bere lursailera isurtzen direla-eta bere bizitzari eusten dion lurzoruaren dauden egonkortasun arazoaren inguruko salaketa behar bezala ebatz dezazun.
2. Egoera behar bezala ebalua dezazun eta, hala badagokio, dagozkion neurriak har ditzazun.

